

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA



- 'PLANAZO'
- TRIBUAREN BERBAK
- KORRIKAREN ABESTIA
- PIZKUNDEA

‘PLANAZO’ EUSKARAZ?

Gabonetako oporrak etorriko dira laster eta egun berezi horietarako planez ariko gara ingurukoekin. Gaztelaniazko ‘planazo’ esateko hainbat modu daude:

- Plan itzel
- Itzelezko plana
- Plan ederra
- Plan bikaina
- Sekulako plana
- Egundoko plana
- Plan puska
- Plan aparta
- Plan apartekoa
- Plan ikaragarria
- Plan izugarria
- Berebiziko plana
- Berealdiko plana
- Bemaseko plana (lagunarteko erregistroa)
- Kristoren plana (lagunarteko erregistroa)
- Plan mundial (lagunarteko erregistroa)

TRIBUAREN BERBAK BUELTAN



02

10 urte pasa dira Tribuaren Berbak saioa amaitu zenetik. Bada, aurtengo abenduaren hiruan egin zuen saioak itzulera, ETBren zuzendarkitzak hala eskatuta. Kike Amonarriz Gorriarekin batera, Izaro Arruti Agirreurreta ariko da saioko gidari lanetan. Denboraldiak hamabi atal izango ditu, eta aurrenekoa Londresen grabatu dute.



KORRIKAREN ABESTIA



03



24. KORRIKAren abestia
kaleratu berri dute Pello
Reparazek, Maixux
Zugarramurdik eta Erramun
Martikorenak: *Xiberutikan
mendebaldera.*

Entzun [hemen](#).

EUSKARAZ BIZITZEKO PIZKUNDEA



04

Abenduaren 27an musikariz, kulturgilez eta aldarrikapenez beteko da Bilbao Arena, 'PIZKUNDEA' izena eman dio Kontseiluak euskararen oldarraldiari erantzuteko ekitaldiari. Hainbat sarrera daude oraindik salgai.

Euskararen soinu-banda' eratzeko hainbat artista bertaratuko dira hara: **Amets Aranguren, Anari, Beñat Goitia "Benizze", Gontzal Mendibil, Gorka Urbizu, Joseba Tapia, Julen Goldarazena "Flako Fonki", Maia Iribarne eta Miren Narbaiza..**

EUSKARAZ BIZITZEKO

PIZKUNDEA

Abenduaren **27an** **EKITALDIA**
BILBAO ARENA · 17:00

Amets Aranguren · Anari · Ane Labaka · Benizze
Eduñe Azkarate · Flako Fonki · Gontzal Mendibil · Gorka Urbizu
Itziar Iturño · Joseba Tapia · Maia Iribarne · Mejillon Tigre
Miren Gaztanaga · Miren Narbaiza · Olaia Aguayo
Ramon Agirre · Sustrai Collina ... eta gehiago

"K"
EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA

Sarrerak: pizkundea.eus